

TOLARE BERRI IKASTOLAKO UMETXOEN ABESTALDEA

J. OLASKOAGA

Urteroko “Oarso” aldizkariaren irakurle; ¿Ba al dakizu ain abeslari eta ereslariaren erria dan Erreterian, Tolare Berri,ko ikastolan urte asko dirala, umetxoen abeslari talde bat izandu zala?

Orain dala illabete pare bat iritxi zan nigana bertako zati izandu zan Jesusa Ezeizak lortu izan da, talde arren argazki bat eta ni ere talde artako zati izanik ona emen aurtengo “Oarso”rako egokitu zaiten idaz lantxo, jakin dezazuten urte aietan baserriko umetxoak abeslari izan ziradela.

1929,garrengo urtea zan; beste Erreteriar lagun batzuekin ikastola arretara joaten nintzala, ziotenez biurrixamarra izanik bertako Dn. Pedro irakaslearen zorrotasunaren bearra izango nuan.

Bertara joaten giñaden goizeko zortziretan, Lanera,ko atarian elkartu ondoren, egun txar eta onarekin, udara eta ne-guan oraingo beroki eta euri zapien antzekorik gabe.

Eguna bertan igarotzen genduen kaletik joaten giñadenak, etxitik zerbait janari eramanaz batzuek aldamenetako baserrietan bazkaria osatzeko laguntza izanik, ni Tolare Berriko maisterra nintzen beste batzuekin batera, amona Manthoni eta bere alaba Maria gure sukaldariak ianik, makiñatxo bat une goxo igarotako sukaldea, etxekoa falta izan gendunean.

Ikastolarako sarrera bederatzietan izaten zan eta egunero ikastaroak egin ondoren, amabietan musika saioa izaten genduen Solfeo irakasaldia gai izanik, arratsaldean beste saioa izaten genduen iruetatik bostetara beste ikasgai batzuekin.

Musika saioen artean abots onentxo zutenarekin sortu zan abestalde berrogei bat mutil eta nesken artean, zuzen-dari gure irakasle zan Dn. Pedro Indaberea eta D.^a Gloria Aillón beste irakaslea armonio jole bezela.

Abesti bilduma mota guzietakoa genduen, euskeldun, erdeldun eta elizkoi latinezkoak iru eta lau abotsetara antolatuak.

Gogoratzen naiz abesti bilduma egiteko nolatan ibiltzen giñan, oraingo aurrerapenik ez bai zan orduan kopiak ateratzeko; igandetan orduko egunkari zan “El Pueblo Vasco”n igandero musika orri bat ateratzen zan eta bertan abesti berri bat azaldurik eguneko ziraden ereslariaren artean.

Berrogei egunkari erosten zituen gure maixuak (bakoi-tzak 10 xentimo balio izaten zuan) eta arropa dendetan bil-tzen genituen kartoi zabaletan itsasita izaten genituen eres-zatiak bakoitzak berea izanik abesti osoarekin.

Gure egintzak ikastaro amaieran egiten zan jai berezian, pelota lekuan meza ondorenean eskola barruan erestaldia izaten genduen; beste batzuetan pertsonai berezi bat etor-ztean ere berarentzat abesten genduen.

Eta ikastaro amaiera oetako batera Udaletxeko ziñego-tziak etorri ziran 1931.go Uztaillaren lendabizikotan eta be-raientzako izandu zan gure lanak azaldu ondoren gure abesti saio berezia.

Abesti aien tartean gaur balitz bazelaxe gogoan daukat gu-re maixuak bertso zaletasuna izanik jarri zizkan itzak.

Baserriko mutil eta
neska koskor danak
Ondo ikasi ditugu
aurtengo lanak
Aupa abestu zagun aupa
gure ume eder gaztiak
gora gora baserritar guztiak.

Ziñegotzien artean (gero berarekin ainbat aldiz abestu izan nuben) Juan Jose Urigoitia arkitzen zan berau abeslari ona eta musika zale izanik gure saioa ona iruditut ondoren Mag-dalen jaietarako egintza batean erestaldi bat emateko dei egin ziguten Udaletxeko festa batzordeak.

Gu guztientzat pozezko deia izandu zan, orrela errian ere ezagutuko bai zuten baserri eskolako abeslari taldea.

Taldea itxuraz irtetzeko jantzi bereziak egin bear eta Uda-laren kontura laisterka batean gaiñera egun gutxi gelditzen ba ziraden ekiñaldirako; Frantxiska Intziarteneko arropa den-da izandu zan gu guztiak jatzeko lekua, orduan nik lenengo praka luzeak izandu nituan naiz amairu urte izan.

Eta onela iritxi zan gure abestaldearentzak errin abestea, jai berezia gaiñera gure ekin aldikoa, gure Xenpelar aundia il zan etxean oroitarri baten azalpena izandu zan “Euskal-tzaleak” eraturako jai batean eta bertan gure abesti saioa es-keiñi genduen; gogoan daukat abesti baten itzak nortzuk izan ziran auek ere gure maixuak jarriak, Xenpelar oroituaz eta Mari Berasartek bere ingeru abotsarekin bakarka egiñaz.

Arritxu onetan azaltzen dira
zure izen ta nonbria
Ondorengoak aztu ez dezaten
zure bizitza ta iltzia.

Jendearen artean oso arrera ona izanik eta txalo asko lor-tuaz (egun onetan atera genduen azaltzen dan argazkia) gero beste saio bat ere egin genduen Francisco Gascue,ren kale zabalketan.

Gure ekintzaren ordaiña egin zizkiguten arropak eta baz-karia izandu zan, berau orduko baserritarren leku berezi zan “Sindikatoan” izandu zan jaki zerrenda onekin, aragi —zukua. Garbantzoa eta aragi zurrukutuna arrosesnea mai az-kena izanik, kafea “Cafe Jardin” orduko leku berezian izan genduen eta azkenik egun orretan Furoen enparantzan iza-ten sar euskal jaiera eraman ginduzen. Bertan erriko abe-reen sari ematea, bertsolariak naiz ziur ez egon, uste det

Txirrita eta Saiburu partaide zirala egun arretan; gauza berezi bat ereba zan egun arretan, Errenterian beti izandu ziran makildantzariak (Gipuzkoako Dantzak) oso famatuak gaiñera, urte aietan Irineo Rekalde zuzendari izanik, bañan jai aldi artan eta lenengo aldiz Eusko Gaztediko espatadantzariak (Bizkaiko dantzak azaldu zituzten ikurriñaren agurra asieran aurkestuaz ainbat unkgarria izanik asiera ura, "Errepublikak" garaia ba zan urte ura, berauek Alejandro Lizaso txistulari ospetsua zuten irakasle bezela.

Festa guztia leku berezi batetik ikusi genduan eta onela amaitu zan guk errian egin genduen egintza oroigarri ura.

Gero taldearen saiok eskola barruan eta lengo eran ja-

rraitu zuten 1936,garren urterarte eta orduko gudarekin batera taldea desegin zan, bizitza naiko laburra izanik.

Eta nere aurtzaroko berriak azalduaz uzte det Tolare Berriko abestalde esagutu dezutela eta erriko musikalarie ar-tean uste det leku txiki bat izango duela emendik aurrera.

Lan onekin batera azaltzen den argazkian izendatuak dira partaideak, batzuek betirako utzi ginduzen eta beste batzuen izenik ez naiz gogoratzen, il ziranentzat nere otoitza eta bizi zeraten guztioi nere oroitzapen onenarekin agurrik beroena.

Abestalde onetako zati izandua.



Ezkerretik eskubi eta goitik bera.

1.ª S. Portugal, A. Etxeberria, J. Olascoaga, F. Mitxelena, Morrontxo, X., J. Retegi, J.M. Zapirain, L. Diaz, J. Olaziregi.

2.ª Dn. Pedro Indaberea, A. Mendizabal, E. Egibar, S. Olaziregi, Jose ta J.M. Olaziregi, X., S. Berasarte, A. Fadrique, E. Mazizior, Mikelatxone, D.ª G. Aillon, F. Eizmendi.

3.ª A. Retegi, J. Urruzola, A. Etxeberria, M. Berasarte, M. Berrondo, B. Berearte, X., M.P. Etxebeste, J. Ezeiza, J. Egibar, A. Altuna, V. Giraldo.

4.ª L. Etxeberria, F. Insausti, R. Berrondo, J. Giraldo, M. Olazabal, F. Etxeberria.

1931.go Uztailaren 24.an